

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Asteazkenetik aurrera, Nafarroako Gobernuak zuzenean eskainiko ditu prentsaurrekoak, YouTube bidez

Edozein motatako gailu informatikoetatik konektatuko ahal izango da prentsaurrekoetara, eta gorde ere egingo dira, geroago ikusi ahal izateko

Asteazkena, 2018.eko urtarrilak 31

Asteazkenetik aurrera, hilak 31, Nafarroako Gobernuak zuzenean eskainiko ditu Nafarroako Jauregiko prentsa-aretoan egiten diren informazio-ekitaldi guztiak, YouTube sare sozialean duen kontuaren bidez (<https://www.youtube.com/user/GobiernoNavarra>). Neurri honek irisgarriago bihurtzen du zerbitzua, orain terminal informatiko guztietatik erabil baitaiteke (besteak beste, tabletak eta gailu mugikorrak). Orain arte, aplikazio informatiko baten bidez eskaintzen ziren prentsaurrekoak, eta mahai gaineko ordenagailuetatik soilik ikus zitezkeen.

Nafarroako Gobernuak prentsaurrekoen grabazio osorako esteka jarriko du navarra.es / nafarroa.eus bidez kaleratzen dituen eta Jauregiko prentsa-aretoan egin beharreko informazio-ekitaldiei dagozkien prentsaurrekoen behealdean. Horrela, hedabideek eta herritarrek geroago ikusi ahal izango dituzte. Era berean, ekitaldi publiko horien laburpenak jarriko ditu egunero YouTube kontuan, euskaraz eta gaztelaniaz, baita [Twitter](#) kontu ofizialean ere (@gob_na).

Informazio-ekitaldi horien grabazioak kalitate handian eta telebista-kanonera egokitutako formatuan egongo dira; horri esker, hedabide digitalek eta telebistek YouTube-tik deskargatu ahal izango dituzte irudiak, edo haietarako esteka erabili, eta, nahi izanez gero, erreproduzitu.

Nafarroako Gobernuak YouTube-n dituen zortzi kanal sektorialak zuzenean ikusteko aukera eskaintzen du Nafarroako Gobernuaren YouTube-ko profil ofizialak: Instituto Navarro de Deporte y Juventud, Carné Joven, Salud, Internacionalización, Turismo, Cultura, Festival Punto de Vista eta Euskarabidea.

Hobekuntza hau prentsa-aretoa eguneratzeko eta modernizatzeko lanen barruan dago. Lan horiek abenduan eta urtarrilean egin dira, eta 37.356,94 euroko inbertsioa (BEZ barne) eragin dute. Prentsa-aretoa 2007an berritu eta ekipatu zen. Orain, instalazioaren audio-sistema berritu da, baita informazio-ekitaldiak grabatzeko kamerak eta grabazio horiek eskaintzeko modua ere. Audio- eta bideo-kalitate onenarekin eskainiko dira, irekian eta zuzenean, Nafarroan erabiltzaile gehien dituen sare sozialaren bidez: YouTube. Izan ere, Nafarroako Audientzien Azterlanaren arabera (CIES 2017), 145.000 jarraitzaile ditu egunero.